

**ZIGOR KODEAREN ERREFORMA PROIEKTUARI EZ, HERRITARREN SEGURTASUN
LEGEAREN ERREFORMA PROIEKTUARI EZ:
“ZIGORRAREN KULTURA IRAULTZEKO MUGIMENDUA”**

1. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA

Zigorraren politiken aurrean alternatiba bat garatzeko mugimendu baten eraikuntza, eta era berean Espainiako Estatua diseinatzen ari den konfrontazio sozialari aurre egiteko beharra ikusten da. Beraz, erantzun erradikal bat (errora joanez) eta gizartearen arazoei aurre egingo dien politika bat behar da, beti ere zigorrean oinarritzen den politika bat izan gabe.

Behar hau, azken garaietan oraindik eta gehiago azaleratu da, gehien bat bi arrazoiengatik. Alde batetik, zigor kodea aldatzeko legearen aurkezpena (2013ko azaroaren 23an), hau da, azken 10 urteetan estatuak garatu duen politika kriminalaren eboluzioaren tontorra, eta bestetik, herritarren segurtasun legearen aurreproiektuaren sorreragatik. Honek “buroerrepresio” kontzeptura garamatza, hau da, errekurtsio honen erabilera gero eta haundiagora. Beraz, zigor administratiboak gero eta gehiago erabiltzen ari dira protesta sozialak erreprimitzeko.

2. TESTUINGURUA

Zigorraren erabileraren igoera graduatua, eta batez ere zigor penalarrena, aspalditik datorren logika baten erantzuna da. “Zigor Zuzenbidearen” zabalkundean, zentzu errepresiboa eta zigorraren kultura sustatuz.

Gainera, zabalkunde hau, oso ondo pentsatu eta antolatutako beldurraren kultura bat eraikitzearekin batera etorri izan da (eta dator). Ez da kasualitatea, neurri hauek ohiko komunikabideek oso ondo bideratu izana. Jakina da, komunikabide haundiek (mass-mediak), bereziki telebistak, iritziak eta alarma soziala eraikitze potentzial ia agortezina dutela. Honek, komunikabideak, estatuaren botere faktikoen kontrolpean, eta eragin haundiko pertsona pribatuen esanetara ditugula (gizarte neoliberalen botere estrukturalen erakusle). Beraz, hauek, giltzarri izan dira politika kriminal gogor eta anker bat ezartzeko, pertsonen arteko gatazkak areagotuz, gizartearen arazo eta gatazkak baztertuz eta erantzun posible bakarra zigor gogor eta eredugarria izanik.

Jakina da baita ere, eta garrantzitsua da azpimarratzea, neurri garrantzitsuenak zentzu honetan, gobernariaren krisi momentu batean etorri direla, neurri gabeko murrizketa sozialen garaia, gizartearen pobretze prozesu batean, eta honek beti segurtasun falta pertsonal eta sozialaren sentzazioa dakar. Hau, beldur belaunaldiaren garaipenaren

hazia dugu. Eta gizarteak beldurra duenean, edo hori sentiarazten digutenean, polizia postu gehiago sortzea, segurtasun pribaturako diru gehiago bideratzea, segurtasun enpresa gehiago izatea, espetxe gehiago eraikitzea, armak eta kontrol sozialerako tresnen erosketak..... badirudi berez legitimatzen direla. Urte batzuetatik hona segurtasunaren inguruan eraikitzen ari den negozio haundi hau kontuan hartu gabe.

Era honetara, progresiboki, zigorraren aplikazioaren joerak (alderdi politiko haundi guztiek babestua, "salbuespenik gabe"), eta etsaiaren figura sortzen digun politikak onartuz, zigorraren bidez segurtasuna lortuko dugun ideologia legitimatzea lortu dute.

Hala ere, aipatutako bi erreformek eta abortuaren legeak (oso denbora urrian azalduak eta oso modu txarrean) izan dira, modu anitzetako kolektiboen haserrea piztu dutenak, bai kaleetan, bai prentsa oharren bidez, bai sare sozialetan azalatu direnak. Mugimendu hauek, beste gauzen artean, pobreak, protesta sozialaren, pertsona "gaixoa"ren kriminalizazioa salatzen dute. Eta hala mugimendu hauek, komunikabideek "delitu" bat egiten duen pertsonaren trataera ankerra, askatasuna lapurtzen duen errekurtsuaren gehiegizko erabilera eta bizi osorako espetxe zigorraren aurrean duten jarrera gaitzesten dute.

3. PAUSO BAT AURRERA

Kontestu honetan, erantzun sozial bat emate aldera, pauso bat gehiago emateko beharra ikusten dugu, eta bi bide jorrazteko beharra.

Alde batetik, beharrezkoa ikusten dugu sentsibilizazio desberdinak batzea, bi lege hauen kontra gaudenen artean. Eta bestetik, beste politika eredu baten aldarrikapena, pertsonak helburu (GUZTIAK) (salbuespenik) gabe, eta gatazkei aurre egiteko erremintak biltzea, zigorraren estrategiatik aldenduz.

Honek, oraingo egoera salatzea dakar. Eta honez gain, estatuari argi eta tinko esatea, ez dugula politika kriminalik nahi, pertsona eta gizarte moduan aldentzen gaituena; politika kriminal klasista, xenofobia, patriarkala, emakumea erabili eta baldintzatzen duena; etsaiaren politika kriminala, desberdinarekiko gorrotoa pizten duena, etiketen politika; giza eskubideak urratzen dituen, pertsonen zerbitzura ez dagoen politika. Guzti honek esan nahi du, gai izan behar garela danon artean, gatazka sozialei aurre egingo dien eredu bat garatzeko, eta ez dadila izan zigorrean oinarritutako eredu.

3.1 Zigor Kodearen Erreforma Proiektua

Lehen aipaturikoak ez dira hitz hutsalak, proiektu hauek ekarriko digutenaren ondorioa baizik.

Hasteko proiektuak zigor kodearen funtsa eraldatzen du.

Zentzu honetan adibidez, erreforma honekin "FALTAK" desagertzen dira, hau da, arau-hauste txikiak kasu batzuetan (gutxienetan), despenalizatu egingo dira (gehienetan kasuz-kasuko isuna herritarren segurtasun legea aplikatuz), eta besteetan (gehienetan), "delitu arin" bihurtuz, non hauek baduten zigor aurrekaria. Erabaki honen ondorioa, gatazka sozialen kriminalizazioa dugu, nahiz eta ordenamendu juridikoak eskeintzen dituen beste bide batzuk erabili litezkeen, adibidez, zerbitzu komunitarioak gatazken konponbiderako.

Proiektuak, lehen inputatu ezin ziren pertsonen segurtasun neurriak ere aldatzen ditu (mendekotasuna edo "gaixotasun mentala" duten pertsonena gehienbat). Proiektu honek, "gaixotasun mentala" duen pertsona berez arriskutsua dela, eta beraz gizartetik aldentu behar denaren ideia indartzen du. Lege proiektuaren arabera, zentru psikiatriko baten internamenduak, ez du jada eperik, hau pertsonaren "arriskua" desagertu arte luza daiteke.

Baina arriskutsuak direnen kontzeptua, ez da soilik "gaixotasun mentala" dutenentzat. Hau alarma soziala sortzeko erabiltzen da. Pertsona guztiak, "salbuespenik" gabe, arriskutsuak izan daitezke, eta beraz, baldintzapeko askatasuna justifikatzen da inputatua izan daitekeen pertsona ororentzat. Hau, espetxealdia -zigorra beterik duten pertsona batzuei inposatuko zaien trataera izango da.

Gainera, baldintzapeko askatasuna eta "etete araubidea" aldaketa baten ondorioz, seguruenik, errezagoa izango da kartzelan sartzea bertatik ateratzea baino. Honez gain, gero eta indar handiagoa hartuko du erantzukizun zibilaren ordainketak baldintza hauek aplikatzeko, beraz pobrezia kriminalizazio gero eta handiagoa izango da.

Seguruenik aldaketa latzena, "espetxealdi iraunkor berrikusgarriarena" dugu, hau da, bizi osorako espetxe zigorra. Badirudi esaten dutela (orain gobernuak ere onartzen du) bizi osorako espetxe zigorra "de facto" existitzen dela orain dugun Zigor Kodean zenbait deliturentzat. Baina honek ezin du justifikatu neurri honen instituzionalizazioa, estatuko indarkeria argiena legalizatuz.

Baina gainera proiektuak, ez du soilik kode penalaren orokortasuna aldatzen, gainera delitu bereziak aldatzen ditu, bereziki gogortuz bizitzaren kontrakoak (tipo exotikoak sortuz eta abortua kriminalizatuz), askatasun sexualaren aurkakoak (emakumea protekziorako objektu bezela erabiliz, eta emakumea babesten ez duen politika kriminal bat sortzean, estatu politikak indartuz bere onurarako, eta kultura patriarkala bermatuz), propietatearen aurkakoak (pobrezia kriminalizatuz), ordena publikoaren aurkakoak (protesta soziala kriminalizatuz) eta atzeritarrak kriminalizatuz (top-manta, laguntza eskeintzea...).

3.2 Herritarren Segurtasunerako Legea

Lege honen inguruan, esan dezakegu, bertan finkatzen diren isunak neurritz kanpokoak direla eta estatu autoritario baten erakusgarri zuzenak direla.

Era honetara, arau-hausle oso larritzat (30.001 eta 600.000 euro artean zigortuak) hauexek ditugu besteak beste. Adibide moduan “La perturbación grave de la seguridad ciudadana en actos públicos, espectáculos deportivos o culturales, solemnidades y oficios religiosos u otras reuniones numerosas”; honek zer esan nahi du, agian, 2013ko Uztailak 6eko ikurrinak zerikusirik duela?; “la perturbación de la seguridad ciudadana que se produzca con ocasión de reuniones frente a las sedes del congreso de los diputados, el senado y las asambleas legislativas de las Comunidades Autónomas, aunque no estuvieran reunidos”; honek argi eta garbi “ Cercar el congreso” bezelako ekimenak zigortzen ditu; Leku “kritikoetan” biltzea ere galarazten da, hau da, kale eta plazetako mobilizazioak adibidez; eta “Ultraje a España, CCAA y entidades locales o sus instituciones, símbolos, himnos o emblemas efectuadas por cualquier medio” hau da, errege kopan erregearen aurkako txistuak adibidez?; segurtasun indarrekin ez kolaboratzea ere zigortzen da, delitu hauek ikertzean edo ekintzen prebentzioan galaraztea. Honek gogorazten digu, atxilotze arriskuan dagoen pertsonarekiko elkartasuna zigortuta dagoela. Adibide garbia dugu, herri harresian, irailak 25ean zerbitzari batek poliziarri aurre egin zioneko; atzeritarrekiko elkartasuna adierazteko ekintzak ere zigortzen dira.

Baina gainera lege honek, modu ez zuzenean, prostituzioa kriminalizatzen du, isun ikaragarriekin, multa askoz gogorragoak ezartzen ditu “botellón” delakoaren eta autokontsumoaren aurka adibidez. Beraz, hain isun gogorrekin, kriminalizatu egiten dira. Gogor zigortzen dira baita ere, etxebizitzan okupazioak eta segurtasun indarrei argazkiak ateratzea. Hau da, beraien ohore eta itxura zikintzen dutenak, hau gertatuko da segurtasun indarrek ez dutenean beraien funtzioa “ondo” egiten. Beraz, argi eta garbi, informazio eskubidearen muga haundi bat egongo da eta gehiegikeri poliziala jasaten duenak, gero eta erreminta gutxiago edukiko ditu egoera hauen aurrean.

4. BUKATZEKO HAUSNARKETA BATZUK

Azaldu ditugun aldaketa guzti hauek, eta honelako txosten batean garatu ezin daitezkeen gehiago, zigorraren logika bati erantzuten diete, eta ez doa inondik inora bat, pertsona eta komunitateen zerbitzurako politika batekin.

Jakina da, delituen oinarrian, gizarteak dituen gatazka larrienak azaltzeko, esplikazio ugari daudela. Honela garrantzitsuenak, pobrezia bezelako arazo sozialetan aurkitzen dira; hezkuntzako gabeziak, hezkuntza sexuala, autokontrola eta gazteentzako erreminten eraikuntza, etorkizunean pertsonaren erabilerarako izan daitezten; kultura

aukeren desoreka; gizarte patriarkalaren erakusgarri den gizon eta emakumeen arteko desoreka. Eta honetaz gain, beste hainbat gairen inguruko politika hipokritak ditugu: natura, drogen kontsumoa, bide-segurtasuna, ustelkeria eta delitu ekonomikoak. Beraz, guzti honen atzean, kontsumo gizarte eta sistema ekonomiko jasangaitz eta esplikaezina dugu.

Zigor Kodearen delitu guztien atzean, azalpen sozial bat dugu. Hala ere, estatuak gehien erabiltzen duen erreminta, eta errekurtsio ekonomiko gehien xahutzen dituen, harentzat zuzenak ez diren jarreraren zigortzean datza.

Honela, Europa guztian "delinkuentzia" tasa baxueneko estatu honetan, kartzelaratzeko tasa altuena dugu, eta badirudi hau ez dela aldatuko: Zigor gehiago eta beste moduko erantzun gutxiago gatazkei aurre egiteko, prebentzioa kasu. Beraz, egin dezagun apustu beste justizia eredu baten alde, soziala, gizatiarragoa eta azken finean, gizartea eta pertsonenganako benetako interesa duena.

5. GURE PROPOSAMENA

Askatasuna lapurtu dieten 78000 pertsonen egoerarekin nazkatuta, gorrotoa eta estatu indarkeria sustatzen dituzten programez nazkatuta, uste dugu garaia dela esateko, gai garela gizarte moduan beste era bateko erantzun soziala emateko eta kalera ateratzeko prest gaudela. Pertsonen ahazten den estatu autoritario honen zigor mugagabeekin amaitzeko, eta gure aurka doan eta bere mantentze politikak garatzea helburu bakartzat dituen estatuaren aurka joateko.

Lehen azaldu dugun bezala, guzti honekin herri mobilizazioa kanalizatu nahi dugu, eta gai hauen inguruan debate bat sortu. Honela, manifestazio bat burutuko dugu oinarri komunak finkatuz eta politika kriminal hau, politika sozial bihurtuko duen indarrak batuz eta beharrezko aldaketarako lehen harria jarritz, 7 puntu hauen inguruan:

1. Zigor Kodearen erreforma eta Herritarren Segurtasun Legearen aurrean ezezko borobila.
2. Zigor politiken gaitzespena, progresiboki eta urteetan zehar Estatu Española garatzen ari dena.
3. Beldurrean eta etsaiarengan oinarritutako politika, eta zigor bidez segurtasuna lortuko den ideologiaren zilegitasunaren gaitzespena.
4. Pertsonen kriminalizazioaren gaitzespena (pertsona guztiak), bai eta ideien eta protesta sozialen kriminalizazioa.

5. Konfidantza, gizarteak berdintasunean oinarritutako politika sozialak eraiki eta aurrera eraman ahal izateko duen gaitasunean, euren gatazkei erantzun bat emateko, zigorrean oinarritzen direnak baztertuz.
6. Arazoak konpontzeko modu alternatiboen apostua, zigorrean oinarritutako formetatik urrunduz.
7. Espetxeratze errekurtsoren gaitzespena gizartearen arazoei aurre egiteko.

